

# Gerra Monumentu Ezinezkoa:

Hilotz bat  
tirokatzea  
hilketa  
jotzen al da?

Tony Chakar  
Apirila 2007

Gerra  
Monumentu  
Ezinezkoa:

Hilotez bat  
tirokatzea  
hilketan  
jotzen al da?

Tony Chakar  
Apirila 2007

Institute of Contemporary Arts (ICA)-ek antolatutako *Memorial to Irak War* proiekturako idatziko lana, London 2007ko maiatzaren 23tik ekainaren 27ra.

«Irakeko Gerraren Oroitarri» baten proiektuaren inguruko hausnarketa bat hasteko, galdera on bat honako hau izango litzateke: hungariar iheslari batek zergatik erabaki zuen 1953ko ICAREN lehiaketarako Reg Butler-en proposamen irabazlearen jatorrizko modelo suntsitzea? Egungo proiektuari lagun egiten dion testu laburrak ez du batere argitzen gertakaria; pasadizoa bidenabar aipatzen da, eta badirudi bertan dagoela bakarrik oin-ohar moduan gai garrantzitsuari dagokionez, alegia, jatorrizko modeloaren suntsiketa eta monumentua gauzatu ez izana. Gainera, eta Butlerren lanaren deskribapen laburra ikusita («... hiru emakume urkamendi abstraktu batek txikiagotuta»), ez dirudi zenbait sentiberatasunekiko iraingarria denik, norbaitek suntsitzea erabakitzen bultzatzeraino. Eta hiru emakumeen sinbolismoa ilun samar gertatzen bada ere (zer dira eta zer ordezkatzuten dute?), urkamendiak irakurketa bikoitz interesgarri bat eskaintzen du: erabiltzen da —aldamio adieran— (eraikinak) altxatzeko eta —urkamendi adieran— (pertsonek) exekutatzeke, aldi berean eraikuntza geometriko abstraktua eta objektu erreala baten irudikapena da, e.a. Eta segurtasunez suposa dezakegu Butler kontzientea zela oposizio horietaz bere eskulturarako modelo aurkeztu zuenean. Orduan, Londreseko hungariar iheslari batek zergatik erabaki behar zuen artelan bat suntsitzea, lanaren aurrean teoriarik sinpatia sentitu behar zuenean, oroitarriak «askatasunaren alde egitegatik espetxeratuta egon edo bizia galdu duen jendea-

ri» gorazarre egiten diela kontuan hartuta? Proposa liteke, jakina, hungariar iheslariak arreta bereganatu edo kausa batera bideratu nahi izatearen aukera, eta hori lortzeko ekintza ikusgarria —egia esan, edozer izan zitekeena— gauzatzea bere burua albistegietan agertzeko. Hori egia balitz, orduan modelo irabazlea suntsitzea ustekabekoa izango litzateke, eta ez luke artelanarekin berarekin zerikusirik izango. Baina orduan, hungariar iheslariak aukera litzakeen ekintza ikusgarrien artean, zergatik erabaki zuen artelan bat suntsitzea? Eta zergatik zehazki hura? Albotik pasatu, lana ikusi, zer zen galdetu, irainduta sentitu eta hari erasotzea erabaki ote zuen? Edo ekintza aurrez pentsatua al zen? Horrek esan nahiko luke informazioa zuela ICAREN lehiaketaz, haren baldintzez eta hark piztu zezakeen eztabaidaz, lan irabazleaz eta seguru asko lana ekoitzi zuen artistaz ere bai. Lehen hipotesiak eskatzen du modelo suntsitua espazio erabat publiko batean erakustea (Londreseko plaza anitzetako batean, esaterako), edonoren eskura egoteko moduan (eta hartara suntsitua izateko moduan, hungariar iheslariak egin zuen bezala). Informazioa falta zaigu, baina suposamendu absurdoa ematen du: ICak zergatik erakutsiko luke modelo irabazlea bere egoitzatik kanpo? Eta edonola ere, aztertzen ari garen pertsona ez litzateke informatu gabeko iheslari bat izango; suposatu behar dugu ingeles hizkuntza apur bat ezagutzen duela, eta ideia jakin batzuk dituela artearen funtzioaz edo nolako itxura izan behar duen edo ez duen izan behar eskultura simple bat iraingarri jotzeko. Badirudi azken argudiook bigarren hipotesia indartzen dutela lehena baino gehiago: ekintza aurrez pentsatuta zegoen, eta gauzatu zuen hungariar iheslariak informazio nahikoa izan behar zuen arteaz oro har eta bereziki lehiaketa hartaz. Misterioan geratzen dira, ordea, suntsitze ekintzaren atzean zeuden arrazoiak eta monumentua inoiz gauzatu ez izanaren arrazoiak; azken batean, artistak aise eskain zezakeen beste modelo bat, eta lana erraz egin zitekeen, suntsitze ekintza ikusgarria gora-behera.

Nire ikerketarekin jarraitzeko, beharrezkoa zait itzulinguru bat egitea; egitate gehiegi falta dira, eta espekulazioak eta hipotesiak besterik ezin dut eskaini. Eta batez ere, 50eko hamarkadan jazotako gertakari baten inguruko ikerketa bat nolatan izan daiteke egokia 2007an Irakeko gerraren oroigarri bat ekoizteko?

Egia esan, egin dezakedan gauza bakarra, eskura dudan aukera bakarra, da nire estudio barrutik detektibearen papera antzetztea. Ez dut inolako ezagutzarik Iraken gertatzen ari denaren inguruan, eta Iraketik nahiko hurbil (geografiari zein kulturari dagokienez) dagoen herrialde arabiar batean bizitzeak ez dit ulerpide berezirik ematen Irakeko gerraz. Telebistan ikusten ditudan albisteei dagokienez, egitateak iluntzeko joera dute, gauza ikusgarrietan bakarrik zentratzen baitira, ulerpideak eskaini beharrean. Areago, telebistan ematen diren irudietan oinarritutako albiste horietan logika bilatzeko bide bakarra haiei bizkarra ematea da, begiak itxita ikustea. Informazio horien oinarrian dauden irudiak beste espazio batetik eta beste denbora batetik datoz: hondamendiaren espazio eta denboratik datoz. Irakeko hondamendia ez da suntsiketa bera, edo gorputz zatikatu kontaezinak; horiek hondamenezkoa telebista pantailetan adierazteko bide bakarrak baizik ez dira. Hondamenezkoa, errealitatean, edonon egon liteke, eta ziur naiz denok izan dugula hondamenezko espazio eta denboraren esperientzia noizbait gure bizitzan. Irakiarren bizitzetan, hondamenezkoaren adierazpen nabarmenenetako bat ikusgai geratu zen gaur egungo gerra eta gorpu zenbaketari hasiera eman baino lehenagotik. Irakiarrei Historiak emandako aukera zen, inolako aukera ez zena: edo onartzen dute nazio batu moduan jarraitzea, Historiaren bilakaeratik apurka-apurka irteten, gobernatzen dituenen odoletik elikatzen den tirano batek elkartuta daukan nazio hipotetiko bat, edo onartzen dute kanpokoen inbasioa, aurreko egoeratik irteteko modu bakarra zena, Historiaren bilakaerarekin bat egiten dute garaiko espirituaren inperatiboak obedituta, eta hartara bat-batean politika identitario hiltzaileek zatikatutako nazio postmoderno bihurtu. Aukera faltsu hori Historiaren ankerkeriaren beste adibide bat da, eta adierazle sendoenetako bat irakiarrek hondamendiaren espazioan eta denboran bizitzen ari direla, Berriaz mozortutako Zaharraren (Historiaren ankerkeria: esklabotza, antzinako tribu gerrak, bizitzaren iraungitze berariazkoa, e.a.) itzulera amaigabeari lotua. Kohelet-ek, Daviden semea bera, aspalditik zekien hori; bazekien halaber hondamenezko denbora ezin dela sekula lineala izan, ezin dela sekula izan gertakari batetik beste baterako ondoriozko progresio razionala (*Kohelet edo Eklesiastes*, 1: 1-11). Denbora lineala Garaileena da; Garaituak, ordea, Historiak garaitutakoak, denbora alegorikoetan bizi dira, horixe baita hondamendiaren denbora.

Monumentu bat, definizioz, jendeari gertakari jakin batzuk gogora ekartzeko balio duen objektua da. Monumentu baten funtzioa da jarraitutasun bat sortzea denboraren ehunean, eta horixe egiten du, ironikoki, haustura espazial bat, urratu bat sortuz hiri ehunean. Monumentuek denbora kontserbatu eta gorde egiten dute, halako moldez, non egungo belaunaldiari etengabe gogorarazten baitzaizkio aurreko belaunaldien lorpenak, eta ziurtatzen zaio etorkizuneko belaunaldiek ere ezagutu ahal izango dutela denboraren jarraitutasuna eta gertakarien arteko lotura. Monumentuak Garaileen hizkuntzaren artikulazio biziena dira; hizkuntza hori oso zehatza da, eta bertan gauza bakoitzak zehazki esan nahi lukeena esan nahi du, metaforei edo alegoriei lekurik utzi gabe. Monumentuak, eta gerra monumentuak bereziki, ezin existi daitezke hondamenezko espazio eta denbora batean, zeinean hizkuntza desegin egiten baita, zeinean esanahia beti baitago bere buruaz kanpo eta adierazleak beti kanpotik argiztatuta baitaude; laburbilduz, espazio batean zeinean denak beste edozer esan nahi baitezake, baina inoiz ez gauza bera, monumentuak beti daude jada suntsituta, baita fisikoki ukitu gabe badaude ere; pentsa daiteke Saddam Hussein orduan garaileak utzitako monumentu eta oroigarri kontaezinez, edo Bagdadeko haren estatuaren suntsitze ekintzaz, Garaile berrien lehen ekintzetako bat, edo Saddam-ikonoa, Saddam-monumentu-eraikitzailearen azken suntsitzearen bi uneez, harrapatu eta azterketa medikua egin ziotenekoa animalia gaixo bati bezala, edo exekutatzean haren buruak krak egin zueneko.

Irakeko gerrarako monumentu bat diseinatzea zeregin ezinezkoa da. Egitekoa onartuko banu, ezin bete dezakedan promesa egitera behartuta egongo nintzateke; batasuna ezarri beharko nuke halakorik ikusten ez dudana lekuan; deskosten gogor saiatzen ari naizen hizkuntza bat mintzatu beharko nuke: Garaileen hizkuntza.

Eta nire ikerketaren hasierara itzuli beharko banu, esango nuke ezinezkotasun horrexek bultzatu zuela hungariar iheslaria Reg Butlerren modelo irabazleari erasotzera 1953an, eta seguru asko bada orobat beste modelo bat ez egitearen eta monumentua eraiki gabe geratzearen arrazoia. Ez da oso zaila Hungariaren arestiko historian hondamenezkoa ikustea: 1953 urtean Imre Nagy lehen ministro bilakatu zen,

eta hark ere ezin izan zion bere promesari eutsi Historiaren ankerkeria zela medio. 1956an tropa sobietarrek inbaditu egin zuten une batez Historiaren ebazpenetik ihes egin zezakeela sinetsi zuen errepublika, eta inbasioa bukatu baino lehen gera zitekeen itxaropen apurraz, honako laguntza-eskakizun etsia aditu zen herrialdeko irrati batean, Nazio Batuei zuzendua:

«Hungaria gara deika. Geratzen den irrati bakarra. Dei bat egiten diegu Nazio Batuei: gaur goizean goiz tropa sobietarrek eraso orokorra jaurti dute Hungarian. Berehalako laguntza eskatzen dizuegu, paraxutistak bidal ditzazuen Danubioz gaindiko probintzietatik».

Ez zaitzatela eskakizunaren zehaztasunak engainatu: hondamenezko denboran, «paraxutistak» hitzak edozer esan nahi dezake... eta, egia esan, beharbada hungariarrak zerutik askatasuna eta itxaropena ekarriko zieten hegorik gabeko aingeruak eskatzen zituzten. Baina ez zuten ezertxo ere lortu. Haien mendeku bakarra atzera begirako bat izan zen, hungariar iheslari batek agindu zitzaien askatasunari gorazarre egiten zion monumentua suntsitu zuenean. Baina berriro diot, monumentu bat ez eraikitzea lortu zuen, edo fisikoki suntsitu jada suntsituta zegoen zerbait? Edo, beste modu batean esanda: hilotz bat tirokatzea hilketa jotzen al da?